

JUAN LUIS ZABALA - DONOSTIA

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren sei eleberriei buruzko bere ikuspegia eman zuen atzo Markos Zapiain filosofia irakasle eta idazleak, Txillardegiren 75 urte euskararen aldeko borrokan Donostian egiten ari diren jardunaldietako aurreneko hitzaldian. Eleberriz eleberriko erreposoak Txillardegiren pentsamenduaren bilakabidearen berri emateko aukera eman zion hizlariari; baita Txillardegiren eleberriz guztien atzean askatasunaren inguruko kezka agertzen dela baieztatzeko ere.

Aurretik, alabaina, bestelako kontuak aipatu zituen Zapiainek. «Txillardegiri beti izan zaio kezka-bide, eta liluratu egin du, gizakiaren eta tximinoaren arteko muga lausoak, eta nahasketak», komentatu zuen, esaterako, hitzaldiaren hasierako partean. «Ondorio larriak» ere atera ditu gogoeta horietatik Txillardegik, hizlariaren ustez: «arimaren hilezkortasunaren ezina, besteak beste».

Nahiz eta gizakia funtsean tximino dela uste, Txillardegik, Los Angelesen 1982an idatzitako eta 1984an argitaratutako *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* liburuan, gizakiaren ezaugarriak zehazten ahalegindu zela ekarri zuen gogora Zapiainek. «Txillardegirentzat, gizakia aspirinak egiten dituen tximino da alde batetik, hau da, teknologia sortzen duena, gai dena, esate baterako, berez ez dagokion esparru batean bizitzeko. Berez, lur azala baldin badagokio ere, gizakia urpean edo airean bizi baitaiteke. Bestetik, halaber, gizakiak legeak eta literatura egiten ditu, kulturgilea da».

Kulturaren nahiz teknologia-aren oinarrian mintzamena dagoenez, Txillardegiren ikuspuntutik begiraruta. «giza animalia-aren berezitasuna mintzamenan dago», Zapiainen ustez.

«Mintzamenak ahalbidetzen digun askatasunari esker egin diezaikegu aurre egoera bidegabeei», adierazi zuen, aurrerago, Zapiainek. «Ez gurxitan naturalizat saidu nahi izan dizkigutenak barne. Euskarak kausa naturalengatik egin du atzera, dioskute. Txillardegiri esker, besteak beste, berehala itzultzen ikasi dugu: etsaien mesprexuarengatik, inkisizioarengatik, okupazio militarrengatik eta gure utzikeria eta ganora eskasarengatik egin du atzera: horra zinezko naturaliza».

Askatasunari loturiko «oinarri filosofiko» hori bat dator, Zapiainek dioenez, Txillardegiren sei eleberrietako hainbat ezaugarri-



MARKOS ZAPIAIN, atzoko hizlaria, Txillardegirekin, hitzaldia hasi baino pixka bat lehenago. JUAN CARLOS RUIZ ARGAZKI PRESS

UKAZIOA LEGETZAT HARTUZ

ARGITARATU DITUEN SEI ELEBERRIETAN OINARRITUTA, TXILLARDEGIREN PENTSAMENDUAREN BILAKABIDEA AZTERTU ZUEN ATZO MARKOS ZAPIAINEK, IDAZLEAREN OMENEZKO JARDUNALDIETAKO AURRENEKO HITZALDIAN



JENDEAREN ARTEAN eserita entzun zuen hitzaldia Txillardegik. JUAN CARLOS RUIZ ARGAZKI PRESS

rekin: «Eleberriz guztiak abiarazten ditu indarrean dagoen giro bati protagonistak eginiko ukonak, pasiboki jasoriko egoerari ezetzak: adiskide taldeari Letu-

riak; lantokiko agindu-emaileari Peruk; ezkon bizitza gezurtiari Elsak; irudimenezko eternitateari *Haizeaz bestaldetik*-eko protagonistak; sorleku arrotzu eta

zafatuari Exkixuk; eta eraso politiko-militarrari Putzuek. Perso-
naiok ez dute onartzen, ezin dute onartu, egoera bidegabetea nolabait moldatzeko joera, ero-

sotasuna helburu injustiziarri ez-ikusia egiteko jukutria, edo nolabaiteko injustizia beharrezkotzat jotzeko aitzakia».

«Txillardegiren eleberrien hasieretan», esan zuen Zapiainek, «persoaiak, sugarean sagarrari haginka egin ostean, badoaz inkontzientziaren paradisutik egotzita haluzinaziora, borroka-ria, mozorrera, bakardadera, piluladikziora, heriotzaren nagusitasun eta ezinbestekotasun itzela guztian eta funtsean sentitzera».

Hortik abiatuta, banan-bana aztertu zituen sei nobela horiek: *Leturaren egukari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960), *Elsa Scheelen* (1969), *Haizeaz bestaldetik* (1979), *Exkixu* (1988) eta *Putzu* (1999).

'Putzu'-ren gorazarrea

Putzu-ri buruz aritzean, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* ekarri zuen gogora Zapiainek, eta gogotik laudatu zituen bi nobelak, Saizarbitoriaren laugarrena nola Txillardegiren seigarrena eta azkena. Biak dira eleberriz «sendoak» eta «ederrak», hizlariaren ustez.

«Zenbait goi-argik *Putzu*-ren soiltasun formala mespretxuzko imintzio aristokratiko batez arbuaiatzen du, ez baitu ez dakit zer xilipurdi *nouveau* baliatu», komentatu zuen Zapiainek. «Irakurle pepelerdoa duzu hori. *Putzu*-k badu giharra, maitasuna, herrimina, heriotza, bizi-bizitza da, makina bat pasarte zirraragarrik hornitzen du. Irakurle osasuntsuak plazer hartzen du nola *Hamaika pauso*-rekin hala *Putzu*-rekin, eta bieki diote gogotatzen».

«Margolaritzan, zineman, literaturan, filosofian, zenbait obra funtsezko ezin izan da sortu zahartzaroan baizik», amaitu zuen Zapiainek *Putzu*-ri buruzko komentarioa. «Autoreak bizialdi osoko kezka eta saioak era xume soil batez bildu, antolatu, gezi bilakatu eta etorkizunearantz jaurtikitzen ditu. Gezia ganoraz jaurtikiz gero, Txillardegik *Putzu*-n bezala, etorkizun hori, orain bilakaturikoan, gezi horrek zeharkatua izango da. Kurosawa, Kant, Turner, Chateaubriand dauzkagu adibide... eta baita betiko Txillardegiren berria ere».

Gaur, jardunaldietako bigarren hitzaldian, Txillardegik politikaren arloan egindako ibilbide aztertu du Emilio Lopez Adan *Beltza*-k. Bihar, hirugarren eta azkeneko hitzaldian, Txillardegik hizkuntzalaritzan egindako urratsei buruz mintzatu du Piarro Etxebarria.